

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

522

2/2023 DEKRETUA, urtarrilaren 24koa, lehendakariarena, zeinaren bidez aldatzen baitira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren Aholkularitza Batzorde Zientifikoko kideak.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua arautzen duen apirilaren 8ko 49/2014 Dekretuaren 9. artikulua ezarritakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzako lehendakariak izendatuko ditu Aholkularitza Batzorde Zientifikoko kideak. Batzorde hori Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren barruko organo aholku-emailea da, eta aholkuak eman eta proposamenak egingo ditu zientziaren, teknologiaren, ikerketaren eta berrikuntzaren euskal sistemari buruz.

Artikulu horretan ezarritakoaren arabera, bestalde, zientziaren, teknologiaren, ikerketaren eta berrikuntzaren alorrean sona handia duten hamar lagunek gehienez ere osatuko dute Aholkularitza Batzorde Zientifikoa. Pertsona horiek lau urtez izango dira Aholkularitza Batzorde Zientifikoko kide. Epe hori amaitzean, beste agintaldi baterako izenda daitezke.

Lehendakariaren abenduaren 19ko 21/2018 Dekretuaren bidez, Aholkularitza Batzorde Zientifikoa osatzen duten kideak izendatu ziren, agintaldia amaitu arte. Izendapena egin zenetik lau urte igaro direnez, bidezkoa da horiek aldatzea.

Horrenbestez, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengo artikulua.— Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren Aholkularitza Batzorde Zientifikoko kideak kargutik kentzea eta eskerrak ematea eskainitako lankidetzarengatik eta egindako ekarpenengatik. Hauek izan dira orain arteko kideak:

Maribel Arriortua Markaida andrea.

Inmaculada Estévez Ovejas andrea.

Iñaki Garmendia Urkizu jauna.

Nuria Gisbert Trejo andrea.

Victor Gómez Pin jauna.

Rufino J. Hernández Minguillón jauna.

María del Carmen Mijangos Ugarte andrea.

Oihana Otaegui Madurga andrea.

Agustín J. Sáenz Fernández jauna.

Izaskun Zeberio Etxetxipia andrea.

Bigarren artikulua.— Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluko Aholkularitza Batzorde Zientifikoko kide izendatzea honako hauek:

Francisco Javier Aizpurua Iriazabal jauna.

Ana Aranzabe García andrea.

Miren Nekane Balluerka Lasa andrea.

Nuria Gisbert Trejo andrea.

Juan José Gómez Cadenas jauna.

Iñigo Martínez de Marañón Ibabe jauna.

María del Mar Mendive Bilbao andrea.

Oihana Otaegui Madurga andrea.

María José Sanz Sánchez andrea.

María del Dulce Nombre Vallet Regi andrea.

Hirugarren artikulua.— Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko urtarrilaren 24an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.